# Cocomm F720 telefonoaren gida azkarra



1. Jakinarazpenetarako Leda
2. Entzungailua
3. LCD pantaila
4. [–] Ezkerreko hautaketa-tekla
5. [–] Eskuineko hautaketa-tekla
6. Norabide-botoia eta baieztatzekoa
7. [ 📞] Deitzeko tekla
8. [📞] Deia amaitzeko tekla/ Menu nagusira itzultzekoa
9. [📞] Multikonferentzia-tekla
10. [📞] Transferentzia-tekla
11. Teklatu alfanumerikoa
12. [✱] Izartxoaren tekla eta teklatua blokeatzekoa/desblokeatzekoa
13. [#] Traol-tekla eta isilaraztekoa
14. [M1-M4] Markatze bizkorreko teklak
15. [0] tekla, labur sakatuta; eta [+] tekla, luze sakatuta
16. Mikrofonoa
17. Entzungailuetarako/esku librekorako jack konektorea (CTIA)
18. Atzeko botoia
19. Bozgorailua
20. Gerrikorako pintza
21. DC 5V elikadura-konektorea

Terminala itzalita dagoela, sakatu [📞] hiru segundoz telefonoa pizteko. SIM txartela sartzen den lehen aldian, terminalak PIN kodea eskatuko du. Pantaila nagusia pantailan agertuko da.

Erabili [◄][►] teklak bolumena igotzeko edo jaisteko, edo luze sakatu [#] bolumena kentzeko.
Ezkerreko hautaketa-tekla edo [▲] tekla luze sakatuz gero, Jakinarazpenen eta Ezarpen bizkorren pantailara joango zara.

Terminala blokeatzeko edo desblokeatzeko, sakatu [ ✱ ] bi segundoz. Gailua itzaltzeko edo pizteko, sakatu [ 📞 ] tekla 3 segundoz.

Erabili [ **OK** ] edo ezkerreko hautaketa-tekla aplikazioen menura sartzeko. Interfaze hau agertuko da pantailan.




| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| 1. | Kontaktuak | 4. | Kalkulagailua | 7. | Egutegia |
| 2. | Historia | 5. | Telefonoa | 8. | Extra |
| 3. | Mezuak | 6. | Erlojua | 9. | Konfigurazioa |

Aplikazio baten ikonoa hautatzeko, erabili **[◄][►][▲] [▼]** teklak; aplikaziora sartzeko, berriz, sakatu **[ OK ]** edo ezkerreko hautaketa-tekla.

**Erabiltzailearen eskuliburu xehatuago bat daukazu helbide honetan: https://www.euskaltel.com/empresas/soy-diente/tengo-dudas-sobre/manuales-y-drivers/manuales/telefonia-fija**

**Telefono honekin arazorik edo zalantzarik baduzu, deitu hona: 900 840 590**

# Cocomm F720 telefonoaren gida azkarra

## Hiruko dei bat egitea

1. Dei bat aktibo dagoela, sakatu ezkerreko hautaketa-tekla **Opción** atalera sartzeko, eta hautatu **Espera** bistaratzen den menuan, uneko deia eteteko.
2. Ireki berriz **Opción**, hautatu **Agregar llamada**, eta egin bigarren dei bat beste zenbaki batera edo agendako kontaktu batera.
3. Bigarren deia aktibatuta dagoela, sakatu [ ] tekla multikonferentzia abiarazteko.

## Dei bat transferitzea

1. Dei bat aktibo dagoela, sakatu ezkerreko hautaketa-tekla **Opción** atalera sartzeko, eta hautatu **Espera** bistaratzen den menuan, uneko deia eteteko.
2. Ireki berriz **Opción**, hautatu **Agregar llamada**, eta egin bigarren dei bat beste zenbaki batera edo agendako kontaktu batera.
3. Bigarren deia aktibo dagoela, sakatu [ ] tekla sarrerako deia bigarren kontaktuari transferitzeko, edo sakatu [ ] tekla bigarren deia aktibo egon baino lehen "galdetu gabe" transferentzia egiteko.

## Markatze bizkorreko teklak konfiguratzea

1. Ireki menua, aukeratu [ ] ikonoa, eta sakatu [ **OK** ] **Teléfono** atalera sartzeko. Sakatu **Opción** eta hautatu **Marcación rápida**.
2. Hautatu markaketa bizkorreko tekla bat **M1-M4** edo **2-9** edukia editatzeko, hautatu memoria-teklarekin lotu nahi duzun kontaktua, eta sakatu [ **OK** ].
3. Itxaroteko moduan, sakatu memoriako tekla bat [**M1-M4**], edo luze sakatu zenbakizko teklatuko tekla bat [**1...9**] markaketa bizkorra erabiltzeko. Deia automatikoki hasiko da. [**1**] tekla erabiltzen baduzu, ahots-postontzira deituko duzu.
4. Deia amaitzeko, sakatu [ ] tekla.

## Bluetooth® gailu batera konektatzea

1. Hautatu ikonoa aplikazioen menuan, eta sakatu [**OK**] sistemaren ezarpen-menura sartzeko. Erabili [▲][▼] teklak **Bluetooth** hautatzeko. Ondoren, sakatu [**OK**] Bluetooth konexioa aktibatzeko.
2. Ziurtatu aldi bateko ikusgaitasuna aktibatuta duzula bi gailuetan.
3. Terminalaren irismen-radioaren barruan dauden gailuak agertuko dira pantailan. Sakatu [**OK**] terminalari lotu nahi diozun gailuaren gainean, eta onartu eskaera leiho gainerakorrean.

Bluetooth funtzioa aktibatuta dagoenean, ikonoa jakinarazpen-barran agertuko da.

Bluetooth funtzioa desaktibatzeko, ireki **Ajustes**, eta sakatu [**OK**] **Bluetooth** aukeraren gainean, eta sakatu berriro [**OK**] **Encendido** aukeran. Bluetooth funtzioa berehala deskonektatuko da. **Ezarpen bizkorren** pantailatik ere **aktiba** eta **desaktiba** dezakezu Bluetootha.

## Bluetooth bidez kontaktuak inportatzea

1. Gailuak lotu ondoren, ireki Kontaktuak zure smartphonean, hautatu **Compartir** edo **Exportar** (smartphonearen arabera), hautatu **Compartir vía Bluetooth**, eta hautatu zer kontaktu bidali nahi dituzun.
2. Mezu bat agertuko da fitxategien transferentzia berresteko. Erabili [▲][▼] norabide-teklak **Aceptar** hautatzeko, eta sakatu [**OK**].
3. Bidali ondoren, terminalak vcf (edo vcard) formatua duen fitxategi bat jasoko du; fitxategi horretara sar zaitezke bai **Notificaciones** pantailatik, bai Bluetootharen **Opciones** menutik, **Mostrar archivos recibidos** aukeran [**OK**] sakatuta.
4. Sakatu [**OK**] fitxategiaren gainean, eta hautatu **Contactos** aukera kontaktuak DT200 terminaleko agendara inportatzeko.

**Erabiltzailearen eskuliburu xehatuago bat daukazu helbide honetan: https://www.euskaltel.com/empresas/soy-diente/tengo-dudas-sobre/manuales-y-drivers/manuales/telefonia-fija**

**Telefono honekin arazorik edo zalantzarik baduzu, deitu hona: 900 840 590**